

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

**Euskal Irrati Telebista
Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoa
(EITB) eta mendeko diren sozietateak**

**Ente Público de Derecho Privado
Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca
(EITB) y sus sociedades dependientes**

2011



AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	9
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	9
II.1.1 Ondasun, hornigai eta zerbitzuen erosketak.....	9
II.1.2 Langileen kontratazioa.....	9
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	10
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI	
BURUZKO IRIZPENAK.....	12
III.1 Kontratazioa.....	12
III.2 Langileria.....	12
III.2.1 Burutzak.....	12
III.2.2 Merkataritza kontratuak.....	13
III.2.3 Gauzazko ordainsariak.....	13
III.3 Aurrekontuak.....	13
III.3.1 Aurrekontuaren mugaketak.....	13
III.4 Beste batzuk.....	13
III.4.1 Hornitzaileei ordainketak.....	13
IV. URTEKO KONTUAK ETA AURREKONTUEN LIKIDAZIOA.....	15
IV.1 EITB eta Taldeko Sozietateen kontu bateratuak.....	17
IV.2 EITBren eta Taldeko Sozietateen banako kontuak.....	14
IV.3 EITB eta Taldeko Sozietateen aurrekontu likidazioa.....	22
ALEGAZIOAK.....	25
BOTO PARTIKULARRA.....	37
ABREVIATURAS.....	39
I. INTRODUCCIÓN.....	41
II. OPINIÓN.....	43
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	43
II.1.1 Adquisición de bienes, suministros y servicios.....	43
II.1.2 Contratación de personal.....	43
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	44

III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....	46
III.1 Contratación.....	46
III.2 Personal.....	46
III.2.1 Jefaturas	46
III.2.2 Contratos mercantiles	47
III.2.3 Retribuciones en especie	47
III.3 Presupuestos.....	47
III.3.1 Limitaciones presupuestarias.....	47
III.4 Otros.....	47
III.4.1 Pagos a proveedores.....	47
IV. CUENTAS ANUALES Y LIQUIDACIÓN DE PRESUPUESTOS	49
IV.1 Cuentas Consolidadas de EITB y Sociedades del Grupo.....	49
IV.2 Cuentas Individuales de EITB y Sociedades del Grupo	51
IV.3 Liquidación de Presupuestos de EITB y Sociedades del Grupo.....	56
ANEXOS	59
A.1 Naturaleza y normativa aplicable.....	59
A.2 Gastos de personal y plantillas.....	60
A.3 Producción.....	63
A.4 Contratación.....	64
ALEGACIONES	67
VOTO PARTICULAR	81

Vitoria-Gasteiz, 2013ko irailaren 25a

Vitoria-Gasteiz, 25 de septiembre de 2013



LABURDURAK

EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
DOUE	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala
EITB	Euskal Irrati Telebista Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoa
EI, S.A.	Eusko Irratia, S.A.
ETB, S.A.	Euskal Telebista, S.A.
SPKL	30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
5/2010 Legea	5/2010 Legea, ekainaren 23koa, EA Eren 2011rako aurrekontuei buruzkoa.
EEP	Enpleguaren Eskaintza Publikoa
AKBP	Administrazio Klausula Berezien Pleguak
GI, S.A.	Gasteiz Irratia, S.A.
GSDN	Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia
EAETB	1/1994 LD, irailaren 27koa, Euskadiko Aurrekontu Araubidearen Testu Bategina eta 2011ko ekainaren 29tik aurrera, 1/2011 LD, maiatzaren 24koa, Euskadiko Aurrekontu Araubidearen gaietan indarrezko legezko xedapenen Testu Bategina onesten duena.
TVCP/HKEE	Herri Kontuen Euskal Epaitegia





Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legeak ezarritakoari jarraiki, Euskal Irrati Telebista /EITB Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren eta mendeko dituen Sozietateen Urteko Kontuak fiskalizatu ditu, 2011ko ekitaldiari dagozkionak.

2011ko ekitaldiaren fiskalizazioak honako alderdi hauek besarkatu ditu:

- Legezkoak: Ondasun eta zerbitzuen erosketan, langilerian eta ekonomia-finantzaren kudeaketan indarreko legeria bete dela egiaztatzea.
- Kontularitzakoak: Aurkeztutako dokumentazio finantzarioa ezargarri diren kontularitzako printzipioei meneratzen zaiela egiaztatzea.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta eragimenari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi dela ere, azaleratutako hutsak “Barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak” idazpuruan xehetasunez jasoko ditugu.

Fiskalizazio lana sektore publikoari ezargarriak zaizkion auditoriako printzipio eta arauen arabera gauzatu da eta kasu bakoitzean beharrezko irizitako hautazko probak, prozeduren azterketa eta auditorian ohiko diren gainerako teknikak baliatu dira txostenean jasotako iritzia defendatzeko, baita kanpoko auditore batek egindako urteko kontuen auditoria euskarritzen duten lan paperen azterketa ere.

EiTB Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 20ko 5/1982 Legeak sortu zuen eta berezko nortasun juridikoa du. Autonomia Estatutuaren 19. artikulua xedatzen duenaren arabera, eskuordetu ziren eskumenen esparruan Autonomia Erkidegoari dagozkion egitekoak betetzen ditu, irrati eta telebista zerbitzuen titular den aldetik.

Irrati-telebistako zerbitzu publikoen kudeaketa horretarako sortutako sozietateen bitartez gauzatzen da: Euskal Telebista, S.A./ETB, S.A., Eusko Irratia, S.A./EI, S.A., Gasteiz Irratia, S.A./GI, S.A. eta Eitbnet, S.A. Horrezaz gain, 2011ko abenduaren 31n EITBk honako partaidetza hauek ditu: Vilau Media, SLn, %25; Expressive Media Proyects, SLn % 24,62; Media For Future, SLn % 15,74; eta Kulture Klub Euskadi, SLn, 2011ko abenduaren 27an sortutakoa, % 25.

EiTB eta mendeko sozietateak, horien akzioen titular bakar dena, EAEn Aurrekontu Orokorren kontura eta gauzatzen dituzten jardueretatik eratorritako diru-sarrera eta etekinen bidez finantzatzen dira, 5/1982 Legearen 45 artikulua agintzen duenaren arabera. Bestetik, Eitbnet, Estatutuen 12. artikuluan jasotakoaren arabera, bere jardueratik eskuratutako berezko sarreren bidez finantzatuko da.

2007ko ekitaldian zehar, 2007-2010 kontratu-programa gauzatu zen; kontratu honek Erakundeak gauzatu beharrek irradi-telebistako zerbitzu publikoaren edukiak zehaztu eta 2008-2011 Plan estrategikoan barne hartutako helburuak definitzen ditu; irrati-telebistako zerbitzu publikoa emateko dituen konpromisoak, zerbitzua kudeatzekoak; eta Eusko Jaurlaritzaren ekarpenen bitartez finantzaketa egonkorra definitzen du, berariazko jarduerak, zerbitzuen prestazioak eta Erakundearentzat eta bere Kudeaketa Sozietateentzat



aktibo erreal eta finantzazkoetan egindako inbertsioek eragindako ustiaketa gastua berdintzeko.

Kontratu-Programari jarraipena egiten dion batzordeak 2010eko urriaren 18an adostu zuen 2011ko abenduaren 31ra arte indarrean zegoena berritzea eta 2011ko abenduaren 28an 2012ko urterako urteko Kontratu-Programa onetsi zuen.



II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

II.1.1 ONDASUN, HORNIGAI ETA ZERBITZUEN EROSKETA (IKUS A.4)

1. 4 zerbitzuri dagozkien gastuak, 434.215 euroren zenbatekoan, dagokion espedientea izapidetu gabe erregistratu dira; ordea, banaka 50.000 euroren zenbatekoa gainditu duten aldetik, publikotasundun prozedura negoziatua baliatuta izapidetu behar ziratekeen, 2011n indarrean zeuden kontratazio aginpideen arabera. Bestetik, pantaila grafikoen errentamendu zerbitzua hasiera batean urteko 193.000 euroren zenbatekoa baino txikiagoa izatea aurreikusi zen eta publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitu zen; ordea, azkenean 276.696 euro egin ditu eta hasierako kopurua gainditzeagatik prozedura ireki bidez izapidetu behar zatekeen.
2. ETB, S.A.k 2010eko ekitaldian publizitatea ekoizteko kontratua aleko prezioen arabera esleitu zuen, gehienera 482.700 euroren aurrekontuarekin. 2011n zehar kontratu hau egikaritu denean hasiera batean aurreikusi ez ziren publizitate kanpainak jaso dira, 306.308 euroren gehiegikeria eragin dutenak. Zerbitzu honen 2012rako lizitazioak jada inguruabar hau aurreikusten du, izan ere, ustekabeko kanpainak direla eta zabalketak egiteko aukera jasotzen du, esleitutako aleko prezio beretan.

II.1.2 LANGILEEN KONTRATAZIOA

3. Erakundearen eta bere sozietateen -ETB, S.A. eta Eitbnet, S.A.- aldi baterako lan-kontratuko langileak kontratatzeke lehenagotik zegoen lan-poltsa erabili da, kideen merezimendu eta gaitasunak sailkatzen ez dituen; horrek ez du bermatzen 5/1982 Legean aurreikusitako merezimendu eta gaitasun printzipioak betetzen direnik (ikus A.2). 2012ko abenduaren 31n, deitutako lanpostuen % 73ari dagokionez, 2010ean abiarazitako EEP amaitu da, lan poltsa hori gaurkotzen duena.
4. 5/1982 Legearen 16. artikulua aldarazten duen 4/1996 Legearen 1.2 artikulua zuzendari nagusiari eskumena ematen badio ere “erakunde publikoko eta bere sozietateetako zuzendaritza-langileak irizpide profesionalak baliatuta izendatzeko, aldeztu aurretik izendapen horien berri administrazio kontseiluari emanaz”, egia da ere zuzendaritzako langilearen figura ez dagoela zehaztuta.

Alabaina, 5/1982 Legearen 47. artikulua dio Erakunde Publikoko eta mendeko dituen Sozietate Publikoetako langileria laneko legerian xedatutakoak arautuko duela (47.1 art.), nahiz era berean dioen “Erakunderako eta bere Sozietateetarako langileen hautaketa deialdi publiko bidez egingo da eta merezimendu eta gaitasun printzipioetan oinarritutako sistemei jarraiki” (47.2 art.).

130/1999 Dekretuari jarraiki, EITBk “Goi Karguetan” lau pertsona ditu izendatuak eta gainera, kargu horietarako Goi Zuzendaritzako kontratua derrigor baliatu behar dela ezartzen du.

2011ko ekitaldian zuzendaritzako lanpostu funtzionaletan 5 pertsona izendatu dira “profesionaltasunaren” kontzeptua baliatuta; kontzeptu hori, arestian aipatutako



Erakundea sortzeko legearen 16. artikulua aurreikusten du, 4/1996 Legeak aldarazitakoa.

5 pertsona horietatik 3k ez zuten lehenagotik erakundearekin inongo kontratu loturarik eta ez daude Goi Kargudun modura bereziak; hala eta guztiz ere, lan kontratu finkoekin kontratatu dira eta horrek 5/1982 Legearen 47. artikulua urratzen du.

Epaitegi honen iritzira, Erakundeak eta mendeko dituen Sozietateek, 1etik 4ra bitarteko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete dute 2011ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, Erakundearen eta mendeko dituen Sozietateen bateratutako urteko kontuek, alderdi esanguratsu guztietan adierazi dute ondarearen, 2011ko abenduaren 31n finantza egoeraren, ekitaldian eragiketen emaitzen, ondare garbian aldaketan eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagozkion esku-diruzko fluxuen irudi fidela.

Gure iritziari eragin gabe, Eusko Jaurlaritzaren 2012ko martxoaren 6an Gobernu Kontseiluak hartutako akordioa ekarri nahi dugu hona; izan ere, Ekonomia eta Ogasun, Industria, Merkataritza eta Turismo eta Kultura Sailburuek hala proposatuta, eta Euskadiko Ondare Legearen Testu Bateginaren 114.1 artikulua, 14. paragrafo, 29. oharren babesean, azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretu bidez onartutakoa, Gobernu Batzordeak EAEn Administrazio Orokorren enpresa-ondareari txertatzea onartu du EITB erakundeak Euskaltel, S.A.ren kapital sozialean duen partaidetza. Eragiketa horrek EAEk emandako gizarte funtsa itzultzea suposatzen du, Euskaltelen izandako parte-hartzearen kontura eta itzulketa parte hartze hori Erakundearen kontuetan jaso dagoen balioarekin egiten da, 20,7 milioi euro, % 5,32ren parte hartzearen balioarekin dena eta honenbestez, sozietate horren gainean dituen eskubide, ekonomiko, politiko eta zeinahi eratakoak eskualdatuaz.

Gure iritzian eraginik izan gabe, Euskal Irrati Telebista/EITB Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoa sortzen duen 5/1982 Legearen 45 artikulua gaineko arreta erakarri nahi duzu, zeinak dioen erakundea eta mendeko dituen sozietateak, horien akzioen titular bakar dena, EAEn Aurrekontu Orokorren kontura eta gauzatzen dituzten jardueretatik eratorritako diru-sarrera eta etekinen bidez finantzatuko direla. Bestetik, Eitbnet, S.A., bere Estatutuen 12. artikuluan jasotakoaren arabera, bere jardueratik eskuratutako berezko sarreren bidez finantzatuko da. EAEn Erakunde Publikoa izan eta indarreko Kontratu-Programatik eratorritako finantzaketa zuzena izateagatik, urteko kontuak funtzionamenduan den enpresaren printzipiopean formulatzen dira. 2011ko abenduaren 31n Bateratutako funts propioen zenbatekoa data horretako Funts soziala baino 137,8



milioi euro txikiagoa da, lehenagoko ekitaldietako emaitza negatiboen metatzearen ondorioz.

Gure iritzia eragin gabe, 2012ko ekitaldian zehar Erakundeak 701.458,67 euro ordaindu zituen partaidetutako sozietate bati 2009ko ekainean emandako abal bat egikaritu zelako; kopuru hori sozietatearen hartzekodunen konkurtsuan barne hartu da.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

III.1 KONTRATAZIOA (IKUS A.4)

Aztertu ditugun 8 espedienteetan, 17,6 milioi euroren zenbatekoarekin esleitutakoak, kontratugilearen kaudimena betetzen dela egiaztatzeko AKBPeK ohiko jokamoldetzat hartzen dute aitormen erantzulea egitea; bide horrek, baina, salbuespenezkoa behar luke izan, ez baita kaudimena egiaztatzeko baliabide nahikoa.

Berebat, kontratua esleitzeko ebazpenak ez ditu hautatutako eskaintzaren ezaugarri eta abantailak arrazoitzen, SPKLren 135.4 artikulua agintzen duen moduan eta horrek gainerako lehiatzaileei babesik eza sor dakieke.

III.2 LANGILERIA

2011ko abenduaren 31n indarrean zegoen organigraman berariazko araudiari meneratutako 4 “goi karguez” gain, beste 120 pertsona ageri dira “zuzendaritzako langile” modura; horietatik, 2011n sartutako 3 eta lehenagoko urteetako 51, aurretik EITB taldearekin kontratu harremanik ez zuten pertsonak dira, deialdi publikorik gabe eta 5/1982 Legearen 47. artikulua xedatzen dituen merezimendu eta gaitasun printzipioetan oinarritutako sistemen babesik gabe kontratatu direnak; halaber, beste 66 pertsona (horietatik 2, 2011n sartu dira), Taldeko langile finkoak dira, izendapen askearen prozedura baliatuta eskuratu dutenak lanpostua, 4/1996 Legearen 1.2 artikuluari jarraiki, 5/1982 Legearen 16. artikulua aldarazten duena.

Aintzat hartuta hainbat komunikabideren jabe den Erakunde honek duen berezitasuna kanpotik datorren langileriaren kontratazioan egungo egoera ebazteko eta zuzendari nagusiak lan legeria betetzeko eta merezimendu eta gaitasun printzipioetan oinarritutako sistemei jarraiki deialdi publikora meneratzeko eskumenak bateratzeko (Erakundearen Legearen 16. eta 47. artikulua), gomendagarria litzateke zuzendari nagusiak organigrama aldaketa onartzeko proposamena egitea Administrazio Kontseiluari, zeinetan “goi kargu” edo baliokidetzat jotako lanpostuak zehaztuko diren, zentzuzko kopuruan, 130/1999 Dekretuaren ondorioetarako eta EITB taldearen plantillakoak izan gabe, betiere profesionaltasun irizpideei jarraiki, lanpostua eskuratu ahalko dutenak zuzendari nagusiaren agintaldiak dirauen aldirako.

III.2.1 BURUTZAK

Ez da inongo irizpide objektiborik aurreikusi burutza lanpostuak balioztatu eta ordaintzeko eta zuzendaritzaren esku geratzen da soldata eta osagarriak balioztatu eta ematea.



Jokamolde honek ez ditu agerian uzten lanpostuaren ezaugarriak, ez eta egindako balorazioa ere.

Beharrezkoa da burutzako lanpostuen ezaugarriak zehaztea eta horiek balioztatzeko irizpide objektiboak finkatzea, eskagarriak diren betekizunen arabera, hala nola, titulazio taldea, ezagutza teknikoak, zailtasuna, erantzukizuna eta baliagarritasuna.

III.2.2 MERKATARITZA KONTRATUAK

Merkataritza kontratu bitartez berariazko lanak egiteko langile profesional eta/edo artistaren kontratazioa, ia beti programak aurkezteko edo horiek prestatu, editatu eta gauzatzeko, ez du finkatuta inongo hautatzeko prozedurarik eta ETB, S.A. eta EI, S.A.ren programazioko arduradunen eta zuzendaritzaren irizpidearen arabera gauzatzen da hainbat probaren bitartez; ez da, ordea, hautaketarako baliatutako profil eta irizpideen ebidentziarik jasotzen. Gomendagarria litzateke prozedura normalizatua onestea kontratu mota honetan egin beharreko proba eta irizpideekin; baita, egindako kontratazioak eta horien baldintzak justifikatuko dituzten emaitzen agiri bidezko ebidentzia ere jasotzea.

III.2.3 GAUZAZKO ORDAINSARIAK

Langileei ondasunak erosteko emandako maileguen gauza bidezko ordainketak ez dira horrela aitortzen NUIZ ondorioetarako.

III.3 AURREKONTUAK

III.3.1 AURREKONTUAREN MUGAKETAK

EAETBren 54.2 artikulua langile gastuei dagokienez ezarritako aurrekontu muga urratu da, izan ere egindako gastuak behin-betiko aurrekontua 1,1 milioi euroan gainditu du EI, S.A. Sozietatean eta 95.482 euroan, berriz, GI, S.A. Sozietatean, batik bat ordaindu beharreko atzeratutako kuoten ondorioz, Donostiako EI, S.A.n Gizarte Segurantzaren Unitateko lan ikuskaritzatik eratorritakoak. Berebat, inbertsioei dagokienez, Eitbnet, S.A. Sozietateak 261.754 euroan gainditu ditu eta 1,9 milioi euroan ETB, S.A. Sozietateak, nagusiki, euskal zinemarekiko konpromisoei aurre egiteko beharrak eraginda, ekainaren 7ko 22/99 legea betez. Nolanahi den ere, inbertsio hauek hasierako aurrekontuan zeuden aurreikusiak.

III.4 BESTE BATZUK

III.4.1 HORNITZAILEEI ORDAINKETAK

Uztailaren 5eko 15/2010 Legearen Xedapen Gehigarri 3.ak eskatutako informazioari dagokionez, merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duena, 2011ko urtean legezko epea gainditu duen hornitzaileei egindako ordainketen zenbatekoa 11,7 milioi euroa izan da, guztira ordaindutakoaren % 11,16 eta haztatutako batez besteko ordainketa epea 25 egunean gainditu da. Bestetik, 2011ko abenduaren 31n EITB taldeko hornitzaileei



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ordaintzeke zegoen saldotik 1,7 milioi euroren zenbatekoak (horietatik, 1,6 milioi euro ETB, S.A.ri dagozkio), legeak horretarako finkatzen duen legezko 85 eguneko epea baino gerorapen luzeagoa zeukan.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV. URTEKO KONTUAK ETA AURREKONTUEN LIKIDAZIOA

IV.1 EITB ETA TALDEKO SOZIETATEEN KONTU BATERATUAK

Hona hemen balantzea, galera-irabazien kontua, ondare garbian aldaketen egoera eta eskudiruzko fluxuen egoera, 2011ko abenduaren 31n bateratuak eta auditatuak:

BATERATUTAKO EGOERA BALANTZEAK			Euroak milakotan		
AKTIBOA	2011	2010(*)	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2011	2010(*)
AKTIBO EZ ARRUNTA	82.456	86.841	ONDARE GARBIA	98.589	105.156
Ibilgetu ukiezina.....	9.074	9.862	Berezko funtsak.....	84.376	88.990
Ibilgetu materiala.....	52.472	55.846	Diru-lag., dohaint. eta jasot. legat.....	14.213	16.166
Taldeko eta elkart. enpresetan e/luz. inber.	153	376	PASIBO EZ ARRUNTA.....	1.310	1.717
Finantza inbertsioak e/luz.....	20.757	20.757	Zorrak eta aldizkakotzea e/luz.....	1.310	1.717
AKTIBO ARRUNTA.....	57.436	61.414	PASIBO ARRUNTA.....	39.993	41.382
Izakinak.....	19.181	16.929	Zuzkidurak eta zorrak e/lab.....	1.750	2.378
Merkat zordunak eta kobratz bestel. knt	20.412	16.230	Merkat. hartzek. & ordaintz. b.kntu batz.	37.918	38.660
Taldeko eta elkart. enpresetan e/lab. inber.	370	370	e/lab. aldizkakotzeak.....	325	344
Finantza inbertsioak e/lab.....	66	133			
e/lab. aldizkakotzeak.....	304	255			
Eskud. eta b. aktibo likido baliokide batz. ...	17.103	27.497			
AKTIBOA GUZTIRA	139.892	148.255	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	139.892	148.255

BATERATUTAKO GALERA-IRABAZIEN KONTUA			Euroak milakotan	
	2011	2010(*)		
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	23.753	25.694		
Izakinen bariazioa.....	2.252	(1.367)		
Enpresek euren aktiborako egindako lanak.....	297	418		
Hornidurak.....	(61.873)	(62.311)		
Bestelako ustiaketa sarrerak.....	136.935	139.971		
Langileria-gastuak.....	(60.592)	(60.750)		
Bestelako ustiapen gastuak.....	(41.469)	(43.373)		
Ibilgetuaren amortizazioa.....	(14.037)	(10.490)		
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egozte.....	6.792	3.494		
Ibilgetua besterenganatzeagatik narriadura eta emaitza.....	-	(5)		
USTIAKETAREN EMAITZA.....	(7.942)	(8.719)		
Finantza sarrerak, finantzat gastuak eta truke aldeak.....	303	323		
EMAITZA FINANTZARIOA.....	303	323		
Baliokidetasunean jarritako sozietateen mozkinetan (galeretan) partaidetza.....	(98)	(9)		
EMAITZA ZERGA AURRETIK.....	(7.737)	(8.405)		
Mozkinen gaineko zerga.....	-	(2)		
EKITALDIKO EMAITZA BATERATUA.....	(7.737)	(8.407)		

(*) Alderaketa ondorioetarako aurkeztua. 2010eko bateratutako balantzea ez dator bat Akziodunen batzordean onartu zenarekin, Gizarte Segurantzaren lan ikuskariztatik eratorritako kuota atzeratuak egoki erregistratzeko egindako akatsen zuzenketaren ondorioz (ikus A.2). Funts propioak, eta ondorioz ondare garbia 1.071 milioi euroan urritu da, izan ere langileen gastua eta Merkataritzako hartzekodunen eta ordaintzeko beste kontu batzuen zorra zenbateko horretan gehitu da. Berebat, rappel kontzeptuan 233 mila euroren zenbatekoa birsailkatu da, ustiaketako beste gastu batzuk eta negozio zifraren zenbateko garbia kontuak zenbateko horretan murriztarazi dituena.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

BATERATUTAKO ONDARE GARBIAK ALDAKETEN EGOERA

A) AITORTUTAKO SARREREN ETA GASTUEN EGOERA BATERATUAK	Euroak milakotan	
	2011	2010
Galera eta irabazien kontuaren emaitza	(7.737)	(8.407)
Ondare garbian zuzenean jasotako sarrera eta gastuak	4.840	4.776
Galera eta irabazien konturako transferentziak guztira	(6.793)	(3.494)
AITORTUTAKO SARRERA ETA GASTU BATERATUAK GUZTIRA	(9.690)	(7.125)

B) ONDARE GARBIAK ALDAKETEN EGOERA BATERATUAK GUZTIRA

	FUNTS		AURREKO		JASOTAKO DIRU-LAG.,	
	SOZIALA ETA		EKIT.		DOHAIN. ETA	
	ERRETSEBAK	EMAITZAK	EMAITZA	LEGAT.	GUZT.	
DOITUTAKO SALDOA, 2010-EKO URTE HASIERA	215.191	(114.763)	(7.184)	14.884	108.128	
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(7.336)	1.282	(6.054)	
Ondare garbiaren bestelako aldaketak	4.202	(7.233)	7.184	-	4.153	
2010-EKO URTEKO AZKEN SALDOA	219.393	(121.996)	(7.336)	16.166	106.227	
Akatsengatik doikuntzak, 2010.....	-	-	(1.071)	-	(1.071)	
2010-EKO URTEKO AZKEN SALDOA	219.393	(121.996)	(8.407)	16.166	105.156	
Aitortutako sarrera eta gastuak	-	-	(7.737)	(1.953)	(9.690)	
Ondare garbiaren bestelako aldaketak	2.005	(7.289)	8.407	-	3.123	
2011-KO URTEKO AZKEN SALDOA	221.398	(129.285)	(7.737)	14.213	98.589	

ESKUDIRUAREN BATERATUTAKO FLUXUEN EGOERA

	Euroak milakotan	
	2011	2010
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik.....	(7.737)	(8.405)
Emaitzari doiketak	9.706	6.050
Kapital arruntean aldaketak	(10.794)	(2.519)
Ustiaketa jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk	470	250
USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(8.355)	(4.624)
Inbertsioen ordainketak	(9.979)	(8.123)
Inbertsio ezagatik kobrantzak	26	-
INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(9.953)	(8.123)
Finantza pasiboko baliabideen kobrantza eta ordainketak	(91)	-
Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak.....	8.005	8.936
FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	7.914	8.936
ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA	(10.394)	(3.811)
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran.....	(27.497)	(31.308)
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran	17.103	27.497



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV.2 EITB-REN ETA TALDEKO SOZIJETATEEN BANAKO KONTUAK

Hona hemen 2011ko abenduaren 31n urteko kontuak, milako euroetan emanak:

BALANTZEA	Euroak milakotan			
	EITB		ETB, S.A.	
	2011	2010	2011	2010
AKTIBO EZ ARRUNTA	82.663	86.179	58.264	62.246
lbilgetu ukiezina.....	449	456	8.127	9.080
lbilgetu materiala.....	1	4	50.137	53.166
Taldeko enpresetan epe luzeko inbertsioak.....	61.456	64.961	-	-
Finantza inbertsioak epe luzera.....	20.757	20.758	-	-
AKTIBO ARRUNTA	24.694	28.651	47.727	50.102
Izakinak.....	-	-	19.182	16.929
Merkataritza zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk.....	7.556	1.075	9.886	12.745
Taldeko enpresetan epe laburreko inbertsioak.....	-	-	18.368	20.140
Finantza inbertsioak epe laburrera.....	60	106	5	25
Aldizkakotzeak.....	5	4	271	247
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak.....	17.073	27.466	15	16
AKTIBOA GUZTIRA	107.357	114.830	105.991	112.348

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	Euroak milakotan			
	EITB		ETB, S.A.	
	2011	2010	2011	2010
ONDARE GARBIA	84.656	90.196	70.886	75.516
Berezko funtsak.....	84.207	89.740	57.121	59.806
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak.....	449	456	13.765	15.710
PASIBO EZ ARRUNTA	-	-	1.310	1.717
Epe luzeko zorrak.....	-	-	-	82
Aldizkakotzeak epe luzera.....	-	-	1.310	1.635
PASIBO ARRUNTA	22.701	24.634	33.795	35.115
Epe laburreko zuzkidurak.....	-	-	731	1.647
Epe laburreko zorrak.....	-	-	77	86
Taldeko eta elkartutako enpresekiko zorrak epe laburrera.....	22.006	24.133	-	-
Merkataritza hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk.....	695	484	32.662	33.057
Aldizkakotzeak epe laburrera.....	-	17	325	325
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	107.357	114.830	105.991	112.348



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

GALERA-IRABAZIEN KONTUA

Euroak milakotan

	EITB		ETB, S.A.	
	2011	2010	2011	2010
Negoio zifraren zenbateko garbia.....	-	-	20.350	19.358
Izakinen bariazioa	-	-	2.252	(1.367)
Enpresak ibilgeturako egindako lanak	-	-	297	417
Hornidurak	(45)	(14)	(59.367)	(57.826)
Bestelako ustiaketa sarrerak	4.051	5.588	111.257	115.542
Langileria-gastuak	(4.546)	(4.853)	(37.234)	(38.611)
Bestelako ustiapen gastuak	(1.710)	(796)	(36.546)	(36.952)
Ibilgetuaren amortizazioa	(11)	(11)	(13.494)	(9.963)
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egoztea	8	8	6.785	3.486
Beste batzuk	(1)	-	-	(4)
USTIAKETAREN EMAITZA	(2.254)	(78)	(5.700)	(5.920)
Finantza sarrerak.....	252	366	159	21
Finantza gastuak eta K. aldeak.....	(25)	(28)	(99)	(39)
Baliabide finantz. besterenganatz. narriadura eta emaitza Finantzarioak	(6.670)	(7.604)	-	-
EMAITZA FINANTZARIOA	(6.443)	(7.266)	60	(18)
EMAITZA ZERGA AURRETIK	(8.697)	(7.344)	(5.640)	(5.938)
Mozkinen gaineko zerga.....	-	-	-	-
EKITALDIAREN EMAITZA	(8.697)	(7.344)	(5.640)	(5.938)

BALANTZEA

Euroak milakotan

	EI, S.A.		GI, S.A.		EITBNET, S.A.	
	2011	2010	2011	2010	2011	2010
AKTIBO EZ ARRUNTA	1.217	1.484	1.114	1.170	618	449
Ibilgetu ukiezina.....	17	26	-	-	482	300
Ibilgetu materiala	1.200	1.458	1.114	1.170	20	48
Taldeko enpresetan epe luzeko inbertsioak	-	-	-	-	116	101
Finantza inbertsioak epe luzera	-	-	-	-	-	-
AKTIBO ARRUNTA	4.902	4.339	660	719	1.734	1.766
Izakinak	-	-	-	-	-	-
Merkataritza zordunak eta kobratzeko bste kntu batzuk...	1.346	1.540	246	183	1.357	696
Taldeko enpresetan epe laburreko inbertsioak.....	3.528	2.784	407	530	370	1.069
Finantza inbertsioak epe laburrera.....	-	1	-	-	1	1
Aldizkakotzeak	19	4	2	1	6	-
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	9	10	5	5	-	-
AKTIBOA GUZTIRA	6.119	5.823	1.774	1.889	2.352	2.215



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA

Euroak milakotan

	EI, S.A.		GI, S.A.		EITBNET, S.A.	
	2011	2010	2011	2010	2011	2010
ONDARE GARBIA	2.803	3.119	1.086	1.264	579	905
Berezko funtsak	2.803	3.119	1.086	1.264	579	905
Diru-laguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak	-	-	-	-	-	-
PASIBO EZ ARRUNTA	-	-	-	-	-	-
Epe luzeko zorrak	-	-	-	-	-	-
Aldizkakotzeak epe luzera.....	-	-	-	-	-	-
PASIBO ARRUNTA	3.316	2.704	688	625	1.773	1.310
Epe laburreko zuzkidurak.....	770	517	170	123	1	2
Epe laburreko zorrak.....	-	-	-	-	-	-
Taldeko eta elkartutako enpresekiko zorrak epe laburrera.	-	-	-	-	274	-
Merkatar. hartzekodunak eta ordaintzeko bste ktu batzuk	2.546	2.187	518	502	1.498	1.308
Aldizkakotzeak epe laburrera.....	-	-	-	-	-	-
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	6.119	5.823	1.774	1.889	2.352	2.215

GALERA-IRABAZIEN KONTUA

Euroak milakotan

	EI, S.A.		GI, S.A.		EITBNET, S.A.	
	2011	2010	2011	2010	2011	2010
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	3.890	4.160	645	655	5.890	5.545
Izakinen bariazioa	-	-	-	-	-	-
Enpresak ibilgeturako egindako lanak	-	-	-	-	-	-
Hornidurak	(2.411)	(3.811)	(225)	(323)	(3.191)	(3.171)
Bestelako ustiaketa sarrerak.....	21.905	15.580	3.770	3.261	-	-
Langileria-gastuak.....	(15.190)	(12.886)	(2.727)	(2.470)	(894)	(859)
Bestelako ustiapen gastuak	(7.242)	(4.139)	(1.591)	(1.289)	(2.082)	(1.387)
Ibilgetuaren amortizazioa.....	(310)	(313)	(75)	(76)	(149)	(127)
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egozteak	-	-	-	-	-	-
Beste batzuk	-	-	-	-	-	-
USTIAKETAREN EMAITZA	642	(1.409)	(203)	(242)	(426)	1
Finantza sarrerak.....	-	-	-	-	18	14
Finantza gastuak eta K. aldeak.....	(2)	(1)	(1)	-	-	-
Baliab. finantz. bestereng. narriadura eta emaitza finantz.	-	-	-	-	13	(9)
EMAITZA FINANTZARIOA	(2)	(1)	(1)	-	31	5
EMAITZA ZERGA AURRETIK	640	(1.410)	(204)	(242)	(395)	6
Mozkinen gaineko zerga.....	-	-	-	-	-	(2)
EKITALDIAREN EMAITZA	640	(1.410)	(204)	(242)	(395)	4



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ONDARE GARBIAK ALDAKETEN EGOERA

A) AITORTUTAKO SARREREN ETA GASTUEN EGOERA

Euroak milakotan

	EITB	ETB, S.A.	EI, S.A.	GI, S.A.	EITBNET, S.A.
Galera eta irabazien kontuaren emaitza	(8.697)	(5.640)	640	(204)	(395)
Ondare garbian zuzenean jasotako sarrera eta gastuak	-	4.840	-	-	-
Galera-irabazietara transferentziak.....	(8)	(6.785)	-	-	-
AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	(8.705)	(7.585)	640	(204)	(395)

B) ONDARE GARBIAK ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA

Euroak milakotan

	FUNTS SOZIALA	AURREKO EKIT. EMAITZAK	JASOTAKO DIRU-LAG., EKIT. EMAITZA	DOHAIN. ETA LEGAT.	GUZT
EITB					
DOITUTAKO SALDOA, 2010-EKO URTE HASIERA	214.864	(114.764)	(7.177)	465	93.388
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(7.344)	(8)	(7.352)
Kapitalaren igoerak.....	4.160	-	-	-	4.160
Emaitzaren banaketa	-	(7.177)	7.177	-	-
2010-EKO URTEKO AZKEN SALDOA	219.024	(121.941)	(7.344)	457	90.196
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(8.697)	(8)	(8.705)
Kapitalaren igoerak.....	3.165	-	-	-	3.165
Emaitzaren banaketa	-	(7.344)	7.344	-	-
2011-KO URTEKO AZKEN SALDOA	222.189	(129.285)	(8.697)	449	84.656

	JAUUK. PRIMAREN KAPITALA ETA ERRETSEBAK	AURREKO EKIT. EMAITZAK	JASOTAKO DIRU-LAG., EKIT. EMAITZA	DOHAIN. ETA LEGAT.	GUZT.
ETB, S.A.					
DOITUTAKO SALDOA, 2010-EKO URTE HASIERA	171.461	(103.138)	(6.309)	14.420	76.434
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(5.938)	1.290	(4.648)
Kapitalaren igoerak.....	3.730	-	-	-	3.730
Emaitzaren banaketa	-	(6.309)	6.309	-	-
2010-EKO URTEKO AZKEN SALDOA	175.191	(109.447)	(5.938)	15.710	75.516
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(5.640)	(1.945)	(7.585)
Kapitalaren igoerak.....	2.955	-	-	-	2.955
Emaitzaren banaketa	-	(5.938)	5.938	-	-
2011-KO URTEKO AZKEN SALDOA	178.146	(115.385)	(5.640)	13.765	70.886

.../...



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

.../...

	JAULK. PRIMAREN KAPITALA ETA ERRETSEBAK	AURREKO EKIT. EMAITZAK	JASOTAKO DIRU-LAG., EKIT. EMAITZA	DOHAIN. ETA LEGAT.	GUZT.
E.I., S.A.					
DOITUTAKO SALDOA, 2010-EKO URTE HASIERA	14.090	(9.253)	(509)	-	4.328
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(1.409)	-	(1.409)
Kapitalaren igoerak	200	-	-	-	200
Emaitzaren banaketa	-	(509)	509	-	-
2010-EKO URTEKO AZKEN SALDOA	14.290	(9.762)	(1.409)	-	3.119
Akatsengatiko doikuntzak	-	-	(1.071)	-	(1.071)
DOITUTAKO SALDOA, 2011-KO URTE HASIERA	14.290	(9.762)	(2.480)	-	2.048
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	640	-	640
Kapitalaren igoerak	115	-	-	-	115
Emaitzaren banaketa	-	(2.480)	2.480	-	-
2011-KO URTEKO AZKEN SALDOA	14.405	(12.242)	640	-	2.803
GI, S.A.					
DOITUTAKO SALDOA, 2010-EKO URTE HASIERA	5.276	(3.601)	(298)	-	1.377
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(242)	-	(242)
Kapitalaren igoerak	130	-	-	-	130
Emaitzaren banaketa	-	(298)	298	-	-
2010-EKO URTEKO AZKEN SALDOA	5.406	(3.900)	(242)	-	1.264
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(204)	-	(204)
Kapitalaren igoerak	25	-	-	-	25
Emaitzaren banaketa	-	(242)	242	-	-
2011-KO URTEKO AZKEN SALDOA	5.431	(4.142)	(204)	-	1.085
EITBNET, S.A.					
DOITUTAKO SALDOA, 2010-EKO URTE HASIERA	786	-	14	-	800
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	5	-	5
Kapitalaren igoerak	100	-	-	-	100
Emaitzen banaketa	14	-	(14)	-	-
2010-EKO URTEKO AZKEN SALDOA	900	-	5	-	905
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(395)	-	(395)
Kapitalaren igoerak	70	-	-	-	70
Emaitzen banaketa	4	-	(4)	-	-
2011-KO URTEKO AZKEN SALDOA	974	-	(395)	-	579



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ESKUDIRUEN FLUXUEN EGOERA

Euroak milakotan

	EITB	ETB, S.A.	EI, S.A.	GI, S.A.	EITBNET, S.A.
USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK					
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik.....	(8.697)	(5.640)	640	(204)	(395)
Emaitzari doiketak	6.446	8.986	847	211	118
Kapital arruntean aldaketak	(6.289)	(3.506)	(815)	(14)	(453)
Eskudiruzko beste fluxu batzuk	274	159	(2)	-	17
GUZTIRA	(8.266)	(1)	(670)	(7)	(713)
INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK					
Inbertsioek erag. ordainketak.....	(3.165)	(9.587)	(786)	(18)	(332)
Inbertsio ezagatik kobrantzak	-	1.792	-	-	-
GUZTIRA	(3.165)	(7.795)	(786)	(18)	(332)
FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK					
Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak.....	3.165	4.840	115	25	70
Finantza pasiboko baliabideen kobrantza eta ordainketak	(2.127)	2.955	-	-	975
GUZTIRA	1.038	7.795	115	25	1.045
ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA					
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran.....	(27.466)	(15)	(10)	(5)	-
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran	17.073	15	9	5	-
GUZTIRA	(10.393)	-	(1)	-	-

IV.3 EITB ETA TALDEKO SOZietateen Aurrekontu Likidazioa

2011ko ekitaldirako kapital eta ustiaketa aurrekontuak honako hauek dira:

KAPITALAREN AURREKONTUA

Euroak milakotan

	EITB, S.A.		ETB, S.A.		EI, S.A.		GI, S.A.		EITBNET, S.A.	
	AZKENA	GAUZATUA	AZKENA	GAUZATUA	AZKENA	GAUZATUA	AZKENA	GAUZATUA	AZKENA	GAUZATUA
INBERTSIOAK										
Inbertsioek erag. ordainketak	3.165	3.165	7.795	9.678	115	60	25	18	70	332
Finantza pasiboko baliabideen ordaink.	-	2.127	-	325	-	-	-	-	-	-
Kapital zirkulatzailaren bariazioa	-	-	-	-	-	743	-	-	-	-
Truke tipoen bariazioaren eragina	-	24	-	99	-	-	-	-	-	-
Ekitaldiaren defizita	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
INBERTSIOAK GUZTIRA	3.165	5.316	7.795	10.102	115	803	25	18	70	332
FINANTZAKETA										
Ustiaketa jardueren eskudiruzko fluxua	-	(8.288)	-	440	-	669	-	(130)	-	(727)
Ondareko baliabid. kobrantzak	3.165	3.165	7.795	7.795	115	115	25	25	70	70
Inbertsio ezagatik kobrantzak	-	46	-	1.867	-	18	-	123	-	714
Eskudiruaren murrizketa garbia	-	10.393	-	-	-	1	-	-	-	-
Finantza pasiboko baliabideen ordaink.	-	-	-	-	-	-	-	-	-	275
Ekitaldiaren mozkina	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
FINANTZAKETA GUZTIRA	3.165	5.316	7.795	10.102	115	803	25	18	70	332



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

USTIAPENAREN AURREKONTUA

Euroak milakotan

	EITB S.A.		ETB, S.A.		EI, S.A.		GI, S.A.		EITBNET, S.A.	
	AZKENA	GAUZATUA	AZKENA	GAUZATUA	AZKENA	GAUZATUA	AZKENA	GAUZATUA	AZKENA	GAUZATUA
GASTUAK										
Hornidurak	12	14	18.806	18.059	869	730	32	47	-	-
Beste enpresa batzuek egindako lanak	26	53	46.837	48.035	1.855	1.797	211	205	3.244	3.203
Langileria-gastuak	5.019	4.546	38.475	37.234	14.062	15.190	2.632	2.727	907	882
Bestelako ustiapen gastuak	627	1.689	27.086	29.820	4.436	7.126	1.236	1.564	1.603	2.070
Ibilgetuaren amortizazioa	10	10	11.378	13.494	274	310	175	75	130	148
Izakinen aldakuntza	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Eman beharreko diru-laguntzak	130.461	136.820	-	-	-	-	-	-	-	-
Truke aldeagatiko finantza gastuak	-	24	291	99	-	2	-	1	-	-
Ibilgetua besterentz. emaitz. narriad.	6.758	6.670	-	-	-	-	-	-	-	-
Mozkinen gaineko zerga	-	-	-	-	-	-	-	-	12	-
Ekitaldiaren mozkina	-	-	-	-	-	640	-	-	-	-
GASTUAK GUZTIRA	142.913	149.826	142.873	146.741	21.496	25.795	4.286	4.619	5.896	6.303
SARRERAK										
Negozio zifraren zenbateko garbia	-	-	20.350	17.906	4.249	3.874	685	639	300	319
Bestelako ustiaketa sarrerak	-	4.051	-	2.854	78	16	4	6	5.451	5.570
Jaso beharreko diru-lag.	135.819	136.819	-	-	-	-	-	-	-	-
Ustiaketa diru-lag. emaitzetara egozte	-	-	111.144	111.145	16.895	21.905	3.422	3.770	-	-
Izakinen bariazioa	-	-	-	2.252	-	-	-	-	-	-
Ibilgetu ez finantzarioko diru-lag. egozte	-	8	5.200	6.785	-	-	-	-	-	-
Finantza sarrerak	326	251	-	159	-	-	-	-	15	19
Ekitaldiko galera	6.768	8.697	6.179	5.640	274	-	175	204	130	395
DIRU-SARRERAK GUZTIRA	142.913	149.826	142.873	146.741	21.496	25.795	4.286	4.619	5.896	6.303





Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOAK, 2011, EUSKAL IRRATI TELEBISTA (EITB) ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOARI ETA HAREN MENDEKO SOZIETATEEI EGINDAKO IKUSKARITZAREN EMAITZAK DIRELA ETA.

AURREKARIAK:

HKEEK 2011ko ikuskaritza-txostenean egindako gogoeten aurrean aurkeztu nahi ditugun alegazioak aipatu aurretik azken bi ekitaldietako "Euskal Irrati Telebista Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoari eta haren mendeko sozietateei egindako Ikuskaritzaren Emaitzak" (aurrerantzean 2009ko eta 2010eko Txostena) agiriari egindako alegazioetan adierazitakoa ekarri nahi dugu ahotara.

Zuzendari nagusiak 2009ko Txostenaren aurrean egin zituen alegazioetako batek, lehenak alegia, 2010. urte erdi aldera EITB Taldeak hasi zituen kontratazio-prozeduren inguruan eman zen berrikuste-prozesu garrantzitsua nabarmentzen zuen.

Errepikakorra izan daitekeen arren, komeni da hau gogora ekartzea: 2009. urte erdi aldera arte, indargabetuta dagoen Administrazio Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 6. Xedapen Gehigarrian ezarritakoari jarraiki, bere garaian HKEEK ikuskatu zituen barne-prozeduretan aurreikusitako publikitate- eta lehia-printzipioen arabera egiten zituen kontratazioak EITBk, baina ez zuen orduan onartu berri zegoen Sektoreko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legeak (aurrerantzean SPKL) aurreikusitako baldintzetan kontuak izapidetzeko barne-protokoloa ezartzen zuen prozedura-araurik.

Bada, HKEEK berak 2010eko Txostenean egiaztatu ahal izan zuen bezala, EITBk etengabe ahaleginak egin ditu, publikitate, lehia, gardentasun, berdintasun eta ez-diskriminazio printzipioei jaramon eginda, aurrera egiteko eta SPKLn etengabe egiten ari diren aldaketei moldatzeko.

2011ko Txosten hau da etengabeko egokitzapen-prozesu hori sendotu dela adierazten duen erakusgarriarik onena.

HKEEK berak baieztatu ahal izan duen legez, 2011ko Txosten honetan gai materialei buruzko gogoetak eragin dituzten espediente gehienak 2009. urtea baino lehenago hasitako espedientei eta konpromisoei dagozkie, eta haietariko asko 2009ko eta 2010eko Txostenean azaldu genituen arren, guztiak konpondu dira 2011. urtean zehar, kasuren batean 2012. urtean.

A. TXOSTENAREN IRITZIARI BURUZ

II.1.1.1 ATALA.- ONDASUN, HORNIGAI ETA ZERBITZUEN EROSKETA.

"4 zerbitzutako gastuak erregistratu dira 434.215 euroko zenbatekoarekin, dagozkien espedientea izapidetu gabe. Banaka 50.000 euroko zenbatekoa gainditu dutenez, publikitatearekin egindako prozedura negoziatuarekin egin beharko ziratekeen, 2011n indarrean zeuden kontratazio-jarraibideen arabera. Bestalde, pantaila grafikoen errentamendu zerbitzua, hasieran urteko 193.000 eurotik



beherako zenbatekoan aurreikusitua zena, publizitate-erretarak gabeko prozedura negoziatuaren bitartez adjudikatuta da, azkenean 276.696 euroko zenbatekoan, eta prozedura irekiaren bitartez izapidetu behar zatekeen, zenbateko hori gainditu izanagatik”.

EITBK II.1.1.1 ATALARI BURUZ EGINDAKO ALEGAZIOA:

HKEEK hasieran zera dio: “4 zerbitzutako gastuak erregistratu dira 434.215 euroko zenbatekoarekin”, eta dagozkien espedienteak izapidetu gabe kontratatu dira.

HKEEK atal horretan egindako gogoetari buruz argitu beharreko lehenengo gauza hau da: HKEEK egiaztatu duen bezala, *eta beren-beregi onartu duen bezala* (dagozkion zeinuekin (*)), azaldutako 4 espedienteetatik, zehazki “materialak garraiatzeko zerbitzua” 111.000 euroko zenbatekoan kontratatzea helburu zuena *behar bezala lizitatu da 2011. urtean*, SPKL eta EITBk onetsitako kontratazio jarraibideak betetzeko.

323.215 euroko zenbatekoa daukaten gainerako 3 kontratazioei dagokienez (guztira azaldu diren 4etatik), HKEEK dio horietan ere ez dela espediente egokia izapidetu. Horri buruz, bidezkoa da bakoitza banaka aztertzea, guztiz diferentek diren egitate eta inguruabarrei dagozkien neurrian.

HKEEK prozeduren izapiderik ez daukatela dioten 3 espediente horietatik, bi (zehazki, 2011ko txostenaren A.4 atalean 3 eta 4 zenbakiekin identifikatuta daudenak) Eusko Jaurlaritzaren erakunde-kanpainen publizitate “spot” batzuei buruzkoak dira. Hirugarrena, aldiz (zehazki, 2011ko txostenaren A.4 atalean 2 zenbakiarekin identifikatuta dagoena), ekipamendu informatikoen errentamenduko kontratazioari dagokio.

Spoten kontratazioari dagokionez, HKEEren baieztapenari erantzuteko egiaztatu behar den lehenengo gauza hau da: HKEEK 2010eko txostenean azaldutako oharrean behar bezala egiaztatuta geratu zen bezala, kontratazio espediente *biak*, EITBren kontratazio jarraibideen 7. c.2 klausulan eta SPKLren 158 a) artikuluan xedatuta dagoenaren arabera, *behar bezala lizitatu* ziren 2010eko ekitaldian, prozedura negoziatu egokien bidez. Hain zuzen ere, prozedura horietan gutxienez hiru eskaintza eskatu ziren.

Bere garaian EITBk 2010eko Txostenaren aurkako alegazioen idazkiarekin batera aurkeztu ziren agiriak aztertu ondoren HKEEK ikusi ahal izan zuen bezala, “*genero-indarkeriari eta gizakien trafikoari eta salerosketari buruzko publizitate-spoten*” kontratazioan (2010eko Txostenaren A.4 atalean 2 zenbakiarekin identifikatuta dagoena), zein “*trafikoko kanpainari buruzko publizitate-spotaren*” kontratazioan (2010eko Txostenaren A.4 atalean 5 zenbakiarekin identifikatuta dagoena), EITBk azalpen-orri batzuk prestatu zituen, eta orri horiek oinarri hartuta, gutxienez 3 publizitate-agentziak euren proposamenak egin zituzten.

Proposamen horietako bakoitza aurkeztu ondoren, beren-beregi erabakitako eta gutxienez 4 kidek osatutako balorazio batzorde baten aurrean defendatu ziren. Hain zuzen ere, batzorde horrek, alde aurretik ezarritako irizpideen arabera (*argitasuna, briefing-a, sormena eta ekoizpena*), ekonomikoki eskaintzarik abantailatsuena hautatu zuen.



Hala eta guztiz ere, kanpaina horiek *jarraitutasuna* eduki behar zuten, ideia-eraren eta sormen-ildoaren garapenari dagokienez (hau da, publizitate komertzialaren sektorean “*spin – off product*” kanpaina deritzona); horregatik, Eusko Jaurlaritzako Sailak hasieran 2010ean bultzatu ziren kanpaina berberei buruzko spot berriak 2011ko ekitaldian berrargitaratzeko erabakia hartu zuenez, EITBk kanpaina horiek bere garaian 2011ko geroko “*spin – off product*” izenekoaren abiapuntu izan zen kanpaina asmatu, sortu eta garatu zuten agentziekin soilik kontratatu ahal izan zuen.

Ondorio horretarako eta SPKLren 154.d eta 162.1 artikuluetan ezarrita dagoenaren ondorioetarako, EITBk, azaldu diren *spoten* kontrataziorako kasuetan ageri ziren “*arrazoi teknikoak edo artistikoak [...]*” zirela medio, horien arabera “*kontratua enpresaburu jakin bati bakarrik esleitu ahal*” ahal baitzaio, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bitartez kontratatu zuen spot horien “*spin – off product*” erako garapena, 2010ean ekonomikoki eskaintzarik abantailatsuena aurkezteagatik hautatu zituen agentziekin.

Ondorioz, EITBren ustez ez da bidezkoa HKEEk atal honetan azaldutako ondorioa.

Azkenik, eta HKEEk prozeduren izapiderik ez daukatela dioen espedienteetako hirugarrenari, ekipamendu informatikoen errentamenduko kontratazioari dagokion espedienteari buruz (2011ko Txostenaren A.4 atalean 2 zenbakiarekin identifikatuta dagoena), EITBren ustez HKEEren hutsa izan behar da. Izan ere, espediente horren kontratu-agirietan ageri denez (Orriak, formalizatutako Kontratua eta Proposamenak), horren ondorioz kontratatu baitziren errentamenduak, bada, errentamendu horiek 2007an behar bezala lizitatu ziren 4 urteko errentamendu-aldietarako (hau da, 48 hilabete). Epe hori kontratua formalizatzen zenetik aurrera zenbatu behar zen (hau da, 2007ko maiatzaren 1etik 2011ko maiatzaren 1era).

Hala ere, alegazio-idazki honekin batera doazen 1 zk.dun agiriko 14.2 atala (Baldintza juridikoen agiria) zein 2 zk.dun agiriko (Kontratua) 4. klausula aztertuz ondorioztatu ahal den bezala, errentamendua hasten denetik lehenengo bi urteen barruan (2007ko maiatzaren 1a), EITBk eskubidea zeukan hasieran errentatutako unitateak handitzeko, “*zehaztuta dagoen prezioan*”.

Hain zuzen ere kontratuko xedapen horren babespean, 2008ko urrian EITBk ahalmen hori baliatu zuen, eta errentamenduan ekipamendu gehigarriak ere sartu zituen.

Ezinbestean, ekipamendu horien errentamendua (handitzearen xedea), oinarri duten kontratuak ezartzen zuen aldi berbererako ezarri zen, 4 urtetarako (hau da, 48 hilabete), luzapen egokia formalizatzeke egunetik aurrera zenbatuta.

Hala, hasieran errentatutako ekipamenduen errentamendua 2011. urtean mugaeguneratu zen, eta luzapenaren xede izan ziren ekipamenduen errentamenduak (2008) 2012. urtera arte iraun zuen.

Aurreko guztiaren frogagisa, HKEEri 3 zk.dun agiri gisa bidali zitzaion 2008ko urriaren 3ko kontratua, errentamendua ekipamendu gehigarrietara 48 hilabetez luzatzekoa.



Azaldutako guztia dela eta, EITBren ustez ez da bidezkoa HKEEk aipatutako lau (4) espedienteeri buruz planteatutako gogoeta egitea, kasu batean ere.

2011ko Txostenaren iritzia ataleko lehenengo atal horren beraren barruan, HKEEk, pantaila grafikoaren errentamendu-zerbitzua kontratatzeari buruz (zehazki, 2011ko Txostenean A.4 atalean 1 zenbakiarekin identifikatuta dagoena), zera ondorioztatu zuen: adjudikatzeko erabilitako prozedura “negoziatua” “prozedura irekia”ren bitartez izapidetu behar zatekeen, azken zenbatekoa 193.000 eurotik gorakoa izan zelako:

HKEEk akats hori pantailen kontratazioaren kasu zehatzari buruz azaltzen du. Horri buruz komenigarria da argitzea 2008a baino lehen behar bezala lizitatu eta adjudikatu zen kontratazio baten ondoriozkoa dela.

Ezinbestean, eta HKEEk berak egiaztatu ahal izan duen bezala, EITBk, pantaila grafiko horien alokairua kontratatzeko, adjudikatu zen unean onetsita eta indarrean zeuden prozedurak betetze aldera, lehia-prozedura egokia sustatu zuen.

Hala ere, horri dagokionez ohar hau egin behar da: dagokigun kasuan bezala, ekipamendu horren kostua handia denez, errentamendu horren kontratazioa 2011. eta 2012. urteetara arte iraun zuten hainbat epetan aurreikusi behar izan zen. Hala egin ezean, errentamendu horren kontratazioa ez zen inolaz ere errentagarria izango bere garaian lizitazioan lehiatu ziren (3) erakundeentzat.

Hala, bada, HKEEk berak egiaztatu ahal izan duen bezala, kontratazio horien indarraldiak iraungi diren neurrian, EITBk 2012. urtean lizitatu ditu SPKLTBren eta indarrean dauden Kontratazioko Jarraibideen arabera.

Azaldutako guztia dela eta, EITBren ustez ez da bidezkoa, 2011ko Txostenean A.4 atalean 1 zenbakiarekin identifikatuta dagoen espedienteari buruz (pantaila grafikoaren errentamendu-zerbitzua kontratatzeari buruz), HKEEk planteatutako gogoeta egitea.

Laburbilduta, EITBren ustez, lehenago esan den bezala, ez da bidezkoa HKEEk IRITZIAren II.1.1.1 atalean planteatutako gogoetak egitea, 2011ko Txostenaren A.4 atalean identifikatutako 4 espedienteetatik batean ere.

II.1.1.2 ATALA.- ONDASUN, HORNIGAI ETA ZERBITZUEN EROSKETA.

“ETB, S.A.k 2010eko ekitaldian publizitatea prezio unitariotan ekoizteko kontratua adjudikatu zuen, 482.700 euroko gehieneko aurrekontuarekin. Kontratu hori 2011n gauzatzean, hasieran aurreikusita ez zeuden publizitate-kanpaina batzuk sartu dira, eta hala, 306.308 euroko gaindikina sortu da. Zerbitzu horren 2012ko lizitazioan inguruabar hori aurreikusita zegoen, aurreikusi gabeko kanpainengatik luzapenak adjudikatutako prezio unitario berberetan egiteko aukera aurrezarri zelako”.



EITBK II.1.1.2 ATALARI BURUZ EGINDAKO ALEGAZIOA:

HKEEk publizitatearen eta publizitate-kanpainen ekoizpenaren zerbitzua egikaritzeari buruz azaldu duen gabeziari erantzuteko, zera egiaztatu behar da: inolaz ere EITBri egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, zerbitzu horren lizitazioari ekin zitzaion unean erabat ezinezkoa zen zenbatzea kontratazioaren indarraldian zerbitzuaren xede izan ahal ziren publizitate-kanpaina guztiak, kanpaina horietako gehienak erakunde publiko batek une jakin batean bultzatzea/ateratzea erabakitzen duen erakunde kanpainetatik edo guztiz aurreikusi ezin diren produktuak eta/edo programazio-edukiak merkaturatzen erortzen direlako.

Hala ere, HKEEk berak onartu eta egiaztatu ahal izan duen bezala, horretaz konturatu bezain laster, EITBk 2011ko ekitaldian beste prozedura bati ekin dio zerbitzu hori kontratatzeke. Prozedura horretan, aurreko kontingentzia hori *behar bezala konpondu da*.

II.1.2.3. ATALA.- LANGILEEN KONTRATAZIOA

“Erakundeko eta haren sozietateetako (ETB, S.A. eta Eitbnet, S.A.) aldi baterako langileak kontratatzeke orduan alde aurretik osatutako lan-poltsa erabiltzen da. Poltsa horrek ez ditu hautagaien merezimenduak eta gaitasunak sailkatzen, beraz, ez du 5/1982 Legeak aurreikusitako merezimendu eta gaitasunen printzipioa betetzen denik bermatzen (ikus A.2 atala). Deialdian aurkeztutako lanpostuen % 73ren kasuan, 2012ko abenduan amaitu zen lan-poltsa hori eguneratzeko asmoz 2010ean hasitako LEP”.

EITBK II.1.2:3 ATALARI BURUZ EGINDAKO ALEGAZIOA:

Aldi baterako lan-kontratadun langileak kontratatzeari dagokionez aurreko ekitaldietako alegazio-idazkietan azaldu dugun berbera esan behar dugu (bereziki 2010eko ekitaldietan esandakoa). Hori berretsi behar dugu, eta hemen agertutaz jotzen dugu. HKEEren txostenak dioten moduan, 2012ko abenduan amaitu dira EUSKAL TELEBISTAREN LEPan deitutako lanpostu gehienak. Beraz, deialdi publiko horren emaitzari esker lan poltsa horiek barematu eta eguneratu ahal izango dira.

II.1.2.4. ATALA.- LANGILEEN KONTRATAZIOA

“5/1982 Legearen 16. artikulua aldarazten duen 4/1996 Legearen 1.2 artikulua zuzendari nagusiari eskumena ematen badio ere «ente publikoko eta bere sozietateetako zuzendaritza-langileak irizpide profesionalak baliatuta izendatzeko, alde aurretik izendapen horien berri administrazio kontseiluari emanaz», egia da ere zuzendaritzako langilearen figura ez dagoela zehaztuta.

Alabaina, 5/1982 Legearen 47. artikulua dio Ente Publikoko eta mendeko dituen Sozietate Publikoetako langileria laneko legerian xedatutakoak arautuko duela (47.1 artikulua), nahiz era berean dioten «Enterako eta bere Sozietateetarako langileen hautaketa deialdi publiko bidez egingo da eta merezimendu eta gaitasun printzipioetan oinarritutako sistemei jarraikiz» (47.2 artikulua).



130/1999 Dekretuari jarraikiz, EITBk «Goi Karguetan» lau pertsona ditu izendatuak eta gainera, kargu horietarako Goi Zuzendaritzako kontratua derrigor baliatu behar dela ezartzen du.

2011ko ekitaldian zuzendaritzako lanpostu funtzionaletan 5 pertsona izendatu dira «profesionaltasunaren» kontzeptua baliatuta; kontzeptu hori, arestian aipatutako Entea sortzeko legearen 16. artikulua aurreikusten du, 4/1996 Legeak aldarazitakoa.

5 pertsona horietatik hiruk ez zuten lehenagotik erakundearekin inongo kontratu loturarik eta ez daude Goi Kargudun modura bereziak; hala eta guztiz ere, lan kontratu finkoekin kontratatu ditugu eta horrek 5/1982 Legearen 47. artikulua urratzen du”.

EITBK II.1.2.4 ATALARI BURUZ EGINDAKO ALEGAZIOA:

Zuzendaritzako langileak: Atal honetan ere, 2009ko ekitaldiko HKEEren ikuskaritzaren txostenari buruz aurkeztutako alegazioetara (hain zuzen ere 2010eko ekitaldirako berretsi genituen horietara) jo behar dugu, eta horiek agertutzat emango ditugu. Izan ere, orduan, izaera juridikoko argudioen bidetik, EITBk auzitan jarri zituen HKEEk gai horri buruzko txostenetan erabili zituen irizpideak, zehaztugabeegiak eta generikoegiak zirela uste zelako, eta kasu batzuetan, gutxienez, oso legezkoak ez zirelako, indarreko Lan arloko Zuzenbidearen ikuspegitik. Beste alde batetik, ikuspegi kuantitatibo hutsetik, HKEEk azaltzen dituen kontratazioen helmen eskasak (EITBren eta/edo bere sozietateen plantillakoak ez ziren 3 profesional kontratatzea), ehun bat zuzendarik eta bitarteko agintarik osatutako organigrama batekin alderatuta, HKEEk diotenari garrantzia kentzen dio.

Hala eta guztiz ere, eta HKEEk gai horretan dauden desadostasunak gorabehera, erakunde publikoaren gaur egungo Zuzendaritza Nagusiaren gogoia EITBko eta bere mendeko sozietateetako zuzendaritzako langileen status juridikoa ondoen definitzen duten antolakuntza arloko neurriak hartzea da. HKEEk berak onartzen duen bezala, status horren jatorrian zehaztugabetasuna edo legezko hutsunea dago. Ondorio horretarako, eta HKEEren jarraibideei jaramon eginda, 2013ko ekainean EITBren gaur egungo Zuzendaritza Nagusiak, bere legezko ahalmenak erabiliz, erakunde publikoko Administrazio Kontseiluari EITBren eta bere mendeko sozietateen zuzendaritzako organigrama berria proposatu dio. Helmen txikiagoko organigrama da, eta bertan azaltzen dira organigramako kide izateko baldintzak. Era berean, indarrean jarri den eredu berriak zehazten duenez, erantzukizun berezia daukaten zuzendaritzako profesionalen kargua, Zuzendaritza Nagusiak izendatu arren EITBko eta bere mendeko sozietateetako plantilla finkokoak ez direnena, alegia, izendatu dituen Zuzendaritza Nagusiaren agintaritzari lotuta geratuko da, profesionaltasun irizpidea oinarri hartuta, izendapena justifikatu duen konfiantzako eta izendapen libreko harreman bereziarengatik.

Eredu berri hori EITBko Administrazio Kontseiluak 2013ko ekainean onetsi du, eta ez da egon horren aurkako botorik.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.2 ATALA.- URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

“Gure iritziarengan eraginik izango ez badu ere, zera azpimarratu nahi dugu: Euskal Irrati Telebista/EITB Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoa sortzen duen 5/1982 Legearen 45 artikulua dio erakundea eta mendeko dituen sozietateak, horien akzioen titular bakar dena, EAEn Aurrekontu Orokorren kontura eta gauzatzen dituzten jardueretatik eratorritako diru-sarrera eta etekinen bidez finantzatu direla. Bestetik, Eitbnet, Estatutuen 12. artikuluan jasotakoaren arabera, bere jardueratik eskuratutako berezko sarreraren bidez finantzatu da. EAEn Erakunde Publikoa denez eta indarrean den Kontratu-programa batetik datorren finantzaketa duenez, urteko kontuak abian den enpresaren printzipioari jarraiki formulatzen dira. 2011ko abenduaren 31ra bitartean finkatutako funts propioen kopurua Gizarte-funtsak garai berean izandakoena baino 137,8 milioi txikiagoa da aurreko ekitaldian metatutako emaitza negatiboaren ondorioz”.

EITBK II.2 ATALARI BURUZ EGINDAKO ALEGAZIOA:

Iritziarengan eraginik ez badu ere, 5/1982 Legearen 45. artikuluan xedatzen diren EITB Erakunde Publikoa eta haren sozietateak finantzatzeko moduei buruzko aipamen horixe jasotzen du ikuskaritzaren txostenak funtzionamenduan den enpresaren printzipioari jarraiki formulatutako Urteko Kontuak azaltzeko xedez, baina ez du ezer aipatzen Funts Propioen eta Gizarte-funtsaren zenbatekoen arteko ezberdintasunari dagokionean.

Emaitza Negatiboak pilatu izanaren ondorioz Finkatutako Funts Propioak Gizarte-funtsa baino 137,8 milioi euro txikiagoak direla baieztatzen duen esapideari dagokionean, honakoa argitu nahi dugu:

Aipatzen diren Emaitza Negatibo horiek ibilgetuen amortizazioen ondoriozkoak dira.

Erakunde Publikoaren eta haren sozietateen aurrekontuak ibilgetuen amortizazioei kendutako gastuen bezainbesteko diru-sarrerak jasotzen ditu. Horrela, ekonomia eta aurrekontuak orekatuta egon arren, Ekitaldiaren Emaitza beti da negatiboa gastuak (amortizazioak barne) diru-sarrerak baino handiagoak baitira.

Metatutako Emaitzek urtez urte gora egitea finantzaketaren kontabilitate-formularen eta Gizarte-funtsaren (ez Gizarte-kapitalaren) eta Funts Propioen arteko aldearen mendekoa da, eta ez da Taldearen finantza-kaudimenaren adierazlea. Aitzitik, mota horretako adierazlea da Funts Propioak 84,4 milioi eurokoa izatea, Ondare Garbia 98,6 milioi eurokoa izatea eta Maniobra Funtsa 17,4 milioi eurokoa izatea.

B. BARNE-KONTROLERAKO SISTEMEN ETA KUDEAKETA-PROZEDUREN GAINENKO TXOSTENAREN INGURUKO IRITZIEI BURUZ

III.1 ATALA.- KONTRATAZIOA

1. *“17,6 milioi euroan esleitu ziren aztertutako 8 espedienteen kasuan, kontratistaren kaudimena betetzen dela frogatzeko, AKPPen ohiko prozedura izaten da arduradunaren aitorpena aurkeztea, nahiz eta mota horretako baliabideak ohiz*



kanpoko egoeretan bakarrik erabili beharko liratekeen ez baitira ezer frogatzeko nahikoa".

EITBK III.1.1.A ATALARI BURUZ EGINDAKO ALEGAZIOA:

EITB ez dator bat HKEEk adierazitako irizpidearekin, azken horrek uste baitu arduradunen aitortpena erabiltzea ez dela kaudimena frogatzeko baliabide nahikoa, izan ere, bide horiek *"ohiz kanpoko egoeretan bakarrik erabili beharko lirateke, ez baitira ezer frogatzeko nahikoa"*.

SPKLren 63. artikulua modu orokorrean arautzen ditu *"kaudimena egiaztatzeko bideak"*, eta honakoa xedatzen du 1. atalean:

"Ekonomia- eta finantza-kaudimena eta gaitasun tekniko edo profesionala kontratazio-organoak 64.etik 68.era arteko artikuluetan aurreikusitako dokumentuen artean zehaztutakoak erakutsita egiaztatuko da".

Hala ere, SPKLren 63. artikulua horren 3. atalean zehaztu egiten du aurreko manua, honakoa adierazita:

"Herri Administrazioetat jotzen ez diren sektore publikoko ente, organismo eta entitateek 64.etik 68.era arteko artikuluetakoez besteko frogabideak onartu ahal izango dituzte arau harmonizatupekoak ez diren kontratueterako".

Aipatutakoa kontuan hartuta, eta EITBk bezala Administrazio Publiko izaerarik ez duten sektore publikoko erakunde, organismo eta entitateek amortizazio-arauketari lotetsita ez dauden kontratuen kasuetarako 64 - 68 artikuluetan xedatutakoak ez bezalako kaudimen-frogak finkatu ahal dituztela argitu ondoren, HKEEren baieztapena, frogatutzat emango balitz, eta hala ez denez, aztertutako 6 espedienteetako 3ren kasuan bakarrik hartu ahalko litzateke aintzat, arauketa bateratuari lotetsita dauden hiruren kasuan, alegia (hau da, 2011ko Txostenaren A.4 atalean 1, 2, 3 eta 4 zenbakiez identifikatutako espedienteen kasuan).

Horrenbestez, ekonomia- eta finantza-kaudimena egiaztatzeko baliabideak zein araubide bateratuaren mendeko kontratueta kontratu-motaren arabera (obrak, zerbitzuak eta horniketak) kaudimen tekniko edo profesionalak egiaztatzeko bideak finkatzen dituzten SPKLren artikuluetara (SPKLren 64 -68 artikulua) bueltatuta, aipatu behar da aipatutako xedapen guztiek erabiltzen duela aitortpena (arduraduna) kaudimena frogatzeko baliabide nahikoa bailitzan, eta beraz, ez da aparteko mekanismo bat.

Gauzak horrela, SPKLren 64. artikulua honakoa onartzen du 1.c atalean *"ekonomia- eta finantza-kaudimena"* frogatzeko baliabide gisa: *"Negozio-bolumen globalaren gaineko adierazpena eta, hala badagokio, kontratuaren objektuaren jarduera-esparruko negozio-bolumenaren gainekoa, gehienez ere azken hiru ekitaldiei buruzkoa"*. Horixe eskatu zuen EITBk arauketa bateratuari lotetsita zeuden eta HKEEk aztertu zituen 8 espedienteetako 3tan (hau da, 2011ko Txostenen 1, 2, 3 eta 4 zenbakiekin identifikatutako espedienteetan).



SPKLren 66. artikulua, aldiz, arauketa bateratuari lotetsitako kontratuetan “*hornidura-kontratuetako kaudimen teknika*” egiaztatzeko bideak arautzen ditu, eta erantzuleen adierazpen-modu ezberdinak onartzen ditu frogatzeko bide bezala.

SPKLren 66.1 artikulua horren a) atalean, hain zuzen, honakoa xedatzen da frogabide gisa:

“Azken hiru urteetan egindako hornidura nagusien zerrenda aurkeztuko da, eta bertan horniduren zenbatekoa, data eta hartzailea, publikoa zein pribatua, azalduko dira. Hartzailea sektore publikoko organoa denean, egindako hornidurak organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira, eta hartzailea erosle pribatua denean, berak emandako ziurtagiri baten bidez, eta ziurtagiririk ez badago, enpresaren aitorten baten bidez”

Halaber, SPKLren 66.1 artikulua b) atalak frogabidetzat jotzen du enpresariak honakoa adierazteko egindako aitortpena:

“Enpresak kontratua gauzatzeko zer teknikari, edo unitatea tekniko (enpresa barrukoak izan nahiz ez), batez ere kalitate-kontrolako arduradunak, dituen azaltzeko adierazpena”.

SPKLren 66.1 artikulua c) atalak frogabide gisa jasotzen du, baita ere, enpresariak honakoa adierazteko egindako aitortpena:

“Enpresaren instalazio teknikoak, kalitatea bermatzeko hartutako neurriak, eta enpresak azterketa eta ikerketa egiteko dauzkan baliabideak adieraziko dira”.

Azkenik, arauketa bateratuaren mendeko zerbitzu-kontratuetan kaudimen teknika egiaztatzeko bideei dagokienean, SPKLren 67.1 artikulua erabat baliozkoak diren erantzuleen aitorten-jokamolde ezberdinak jasotzen ditu a) edo b) ataletan.

Are gehiago, lizitatuak zenbait kaudimen-baldintza egiaztatzen badituzte ere, Administrazio Baldintzei buruzko Pleguetan aurreikusitakoari jarraiki, EITBk aitortutakoa egiaztatzen duten frogagiriak aurkezteko eskatzen die, HKEEk adierazitako espediente guztietan azaltzen den legez.

Horrenbestez, EITBk ezin du HKEEk atal honetan adierazitako irizpidearekin bat etorri, frogatuta geratu den legez SPKLk aitorten-formula (erantzuleak) ezberdinak aurreikusten baititu kontratazio-organismoak inor kontratatze eskatzen duen kaudimen ekonomiko, finantzario, profesional zein teknikoaren gutxienezko baldintzak bermatzeko balio duen mekanismo legez, eta ez ditu ezohiko mekanismo gisa hartzen.

2. *“Halaber, kontratuaren adjudikazio-ebazpenak ez ditu aukeratutako eskaintzaren ezaugarriak eta onurak azaltzen SPKLren 135.4 artikulua eskatzen duen legez, eta horrek defentsa-gabezia eragin diezaieke gainerako lizitatuak”.*

EITBK III.1.2.A ATALARI BURUZ EGINDAKO ALEGAZIOA:

HKEEK aztertutako 8 espedienteek hutsunea dutela uste du, izan ere, bere hitzetan *“kontratuaren adjudikazio-ebazpenak ez ditu aukeratutako eskaintzaren ezaugarriak eta onurak azaltzen SPKLren 135.4 artikulua eskatzen duen legez”*.

Hala ere, HKEEK kontuan hartu behar du 34/2010 Legea¹ 2010eko irailaren 10ean indarrean sartu zen arte SPKLk eta bereziki haren 135.4 artikulua lehen idazketak ez zutela beharrezkotzat jotzen argitaratutako esleipen-ebazpenean *“aukeratutako eskaintzaren ezaugarriak eta onurak”* azaltzea.

EITBk, sektore publikoko erakunde kontratatzaile gehienek bezala, 34/2010 Legea indarrean jarri arte, adjudikatzeko ebazpenetan azken puntuazioko taula bat azaltzen zuen. Taula horretan, zehaztasunez banakatzen zuen parte-hartzaile bakoitzak balorazioaren xede zen elementu (irizpide) bakoitzean lortutako puntuazioa.

Modu horretan, lizitatzailleek, SPKLren 135.4 artikulua idazkera berrian xedatuta dagoenaren harira, *“aukeratutako eskaintzaren ezaugarriak eta onurak”* identifikatu ahal zituzten; horrez gain, era berean, proposamen bakoitzean baloraziorako erabakigarriak ziren ezaugarriak eta abantailak ikuskatu ahal zituzten, konparaketaren ondorioetarako.

Hori gutxi balitz, EITBk, HKEEK aipatzen dituen kontratazioetako bakoitzean, espedientearen zeuden agiri eta/edo txosten guztiak lizitatzaileren eskura jarri zituen beti, konfidentzialtasun printzipioari jaramon eginda.

Aurreko hori gorabehera, EITBk 2011. urteko azken espedientei dagozkien adjudikazio-ebazpenetan are deskriptiboagoa den zerrenda sartu du, SPKLren 135.4 artikuluan (gaur egun SPKLTBren 151. artikulua) horretarako xedatuta dagoenaren ildotik.

Laburbilduz, EITBren ustez, azaldutako guztia dela eta, ez dira bidezkoak HKEEK 2011ko Txosteneko KONTRATAZIOAri buruzko III.1 ATAL honetan egindako gogoetak.

III.2 ATALA.- LANGILEAK

“2011ko abenduaren 31n indarrean zegoen organigraman, araudi bereziari atxikitako 4 “Goi Kargudunetz” gain, 120 pertsona ageri dira “zuzendaritzako langile” gisa. Haien artean, 2011n sartutako 3 pertsona, eta aurreko urteetan sartutako 51 pertsona, aurretiaz EITBrekiko kontratu-harremanik ez zeukaten langileak dira; deialdi publikorik gabe eta merezimendu eta gaitasunen printzipioetan oinarritutako sistemetan babestu gabe kontratatu dira, 5/1982 Legearen 47. artikulua horixe ezartzen duen arren; eta beste 66 pertsona, haietatik 2 2011n sartu direla, Taldeko langile finkoak dira eta postua izendapen

¹ 34/2010 Legea, abuztuaren 5ekoa, honako lege hauek aldarazten dituena: 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa; 31/2007 Legea, urriaren 30ekoa, uraren, energiaren, garraioaren eta posta zerbitzuen sektoreetan kontratazio prozedurei buruzkoa; eta 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, lehenengo biak arautegira egokitzeko Administrazioarekiko Auzi Jurisdikzioa arautzen duena.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

libreko prozeduraren bitartez eskuratu dute, 5/1982 Legearen 16. artikulua aldatzen duen 4/1996 Legearen 1.2 artikulua araberan (G.6.3).”

Hainbat hedabideren titularra den Erakunde baten berezitasuna kontuan hartuta, eta kanpotik heltzen diren langileen kontratazioan gaur egun dagoen egoera konpontzeko, eta Zuzendariaren ahalmenak lan arloko legedia betetzearekin bateratzeko, eta deialdi publikoak ezartzeko, merezimendu eta gaitasun printzipioetan oinarritutako sistemekin (Erakundearen Legearen 16. eta 47. artikulua), gomendagarria litzateke Zuzendari Nagusiak organigramaren aldaketa bat proposatzea, Administrazio Kontseiluak onar dezan. Aldaketa horretan, “goi kargudunak” edo haiekin pareka daitezkeen lanpostutzat hartzen direnak ezarriko dira, arrazoizko kopuru batean, 130/1999 Dekretuan ezarrita dagoena betetze aldera. Lanpostu horiek izango dira kanpotik profesionaltasun irizpideetan oinarrituta sartu ahal izango diren bakarrak, Zuzendari nagusiaren aginteari lotuta geratuko den kontratazio-prozedura baten bitartez.”

EITBK III.2.1.A ATALARI BURUZ EGINDAKO ALEGAZIOA:

HKEEK EITBko eta bere sozietateetako zuzendaritzako langileen kontratazioari buruz “III BARNE-KONTROLERAKO SISTEMEN ETA KUDEAKETA-PROZEDUREN GAINEKO TXOSTENAREN INGURUKO IRITZIAK – III.2 LANGILEAK” atalean egindako gogoeten gaia eta edukia “II IRITZIA – II.1.2. LANGILEEN KONTRATAZIOA” atalean ageri diren berberak dira. Hortaz, aurreko puntuan –“II.1.2.4 Langileen kontratazioa”– horri buruz eta bereziki Zuzendaritza Nagusi honek 2013ko ekainean gai horri erantzuna emateko hartutako antolakuntza arloko neurriei helduko diegu.

III.2.1 ATALA.- BURUZAGITZAK

“Ez dago inolako irizpide objektiborik buruzagitza-postuen balorazioa egin eta ordainsariak ezartzeko orduan; zuzendaritzari dagokio horien balorazioa egitea eta ordainsariak zein plusak esleitzea. Egoera horretan ez da zehazten lanpostuak zer-nolako ezaugarriak dituen, ezta balorazioa nola egin den ere.

Ez inbestekoa da buruzagitza-postuen ezaugarriak definitzea eta horiei balorazio-irizpide objektiboak ematea bete beharreko baldintzak kontuan hartuta: titulazio-maila, ezagutza teknikoak, zailtasuna, erantzukizuna eta hautagaia libre egotea”.

EITBK III.2.1 ATALARI BURUZ EGINDAKO ALEGAZIOA

Atal horri buruz aurreko ekitaldietako aurkeztutako alegazioetara joko dugu, eta horiek errepikatutzat emango ditugu.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.2.2. ATALA.- MERKATARITZA-KONTRATUAK

“Ez dago inolako aukeraketa-prozedurarik ezarrita programak aurkeztea edo horien prestakuntza, edizioa eta errealizazioa egitea bezalako berariazko lanak gauzatzeko langile profesionalak edo/eta artistak merkataritza-kontratu bidez kontratatzeke, beraz, aukeraketa ETB, S.A. eta E.I., S.A. enpresetako programazio-arduradunen eta zuzendaritzen irizpideari erantzunez egiten da eta ez da hautaketa horretarako erabili diren profilen eta irizpideen arrastorik geratzen. Gomendagarria litzateke mota horretako kontratuak egiterakoan kontuan hartu beharreko irizpide eta probak ezarriko dituen prozedura normalizatua onartzea eta egindako kontratazioak eta horien baldintzak justifikatzen dituzten emaitzak agiri bidez jasota uztea.

EITBK III.2.2 ATALARI BURUZ EGINDAKO ALEGAZIOA

Aurreko ekitaldietako alegazioan azaldu dugun bezala, erabat formala den ikuspuntu batetik, ez dugu ulertzen HKEEren irizpidea, hau da, merkataritzako kontratazioei buruzko atala langileen atalean sartzeari; izan ere, kontratazio hori pertsona fisikoekin zein pertsona juridikoekin egiten dela ere, ez dira EITBrekiko langile finkoak edo aldi baterakoak, baizik eta erakunde publiko horren zein bere sozietateen kanpoko profesionalak, euren zerbitzu profesionalak EITBrekiko inolako lan arloko loturarik gabe ematen dituztenak (hori da azpikontraten, ekoizpen-etxeen, kanpoko abokatu baten, etab.en kasua). Beraz, horien kontratazioari buruzko arazoak ondasun, hornidura edo zerbitzuen kontratazioari buruzko atalean sartu beharko liriateke.

Nolanahi ere, izaera formaleko zehaztasunez harago, ikuspuntu materialetik, berriro esan behar dugu EITBk eta bere sozietateek euren enpresa-jarduera garatzen duteneko ikus-entzunezko eremuan espezifikokoak diren aurkezleen, artisten, etab.en kontratazioa berezia dela. Merkatu libreko ekonomia batean berezkoa den kontratazioa da, administrazio publikoaren eremuaz bestelakoa. Horregatik, ezin dira aplikatu enplegu publikora sartzeko irizpide orokorrak. Aitzitik, aurkezle eta artista horien kontratazioa, kasu askotan zalantzarik gabe pertsona horiek hedabideetako izarrak direla aintzat hartuta, bestelako irizpide batzuetan oinarrituta egin behar izaten da: “katxea”, telebistako modak, profesional gisa agertzen duen gertutasuna, etab.

ALEGAZIOAK, ERAKUNDEAREN ZUZENDARI NAGUSI OHIAK EUSKAL IRRATI TELEBISTA (EITB) ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAREN ETA MENDEKO SOZIEATEEN FISKALIZAZIO LANAREN ONDORIOEI JARRITAKOAK, 2011.

Fiskalizazio-gai izan den aldian Euskal Irrati Telebista Erakunde Publikoaren zuzendari nagusi izan dena, aurreko Alegazioak ikusirik, guztiz bat dator horietan adierazitakoarekin.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

BATERAKO BOTO PARTIKULARRA, HKEE-REN LEHENDAKARIORDE DEN JOSÉ MIGUEL BONILLA JAUNAK ETA MARIANO GARCÍA KONTSEILARI JAUNAK “EUSKAL IRRATI TELEBISTA (EITB) ZUZENBIDE PRIBATUKO ENTE PUBLIKOA ETA MENDEKO DITUEN SOZIJATEAK. 2011” FISKALIZAZIO TXOSTENARI JARRITAKOA.

Honako hau izenpetzen dugun kontseilariok, nahiz txostenean jasotako azken iritziarekin bat gatozen, errespetu osoz desadostasuna erakutsi nahi dugu Osokoak 2009ko urteko langile gastuen fiskalizazioan hartutako irizpide berriarekiko, EITBkoa ez den zuzendaritza langileen kontratazioari dagokionez, 2009 eta 2010eko ekitaldien fiskalizazio txostenei jarritako baterako boto partikular bitartez adierazi zena.

Ez dugu Osokoaren irizpide aldaketa justifikatuko duen txostenik eskuratu, Osoko honek 2008an legezko irizten zion hari 2009an, 2010ean eta 2011n ez legezko irizteko, inongo arau edo prozedurarik batere aldatu ez denean. Behar hainbateko arrazoirik gabe 5/1982 Legea ezarrita zuzendaritzako langileen izendapenean erabilitako prozeduraren zuzentasunari dagokionez fiskalizazio-gai izan den erakundean sortutako konfiantza etetea, herri-administrazioen jardueran buru egiten duten printzipioen aurkakoa da, eta zehazki, bidezko konfiantzaren printzipioaren aurkakoa, fede on, segurtasun juridiko eta herri-administrazioen arbitrariotasunaren interdikzio printzipioei estu-estu lotua dagoena.

Horregatik guztiagatik, II.1.2-4 atala, Langileen Kontratazioan Legea Betetzea eta III.2 atala, Langile kontuetan Barne Kontrolerako Sistemen eta Kudeaketa Prozeduren gaineko Irizpenak, kendu egin behar direla uste dugu.

Vitoria/Gasteiz, 2013ko irailaren 25a





ABREVIATURAS

CAE	Comunidad Autónoma de Euskadi.
DOUE	Diario Oficial de la Unión Europea.
EITB	Ente Público de Derecho Privado Euskal Irrati Telebista.
EI, S.A.	Eusko Irratia-Radiodifusión Vasca, S.A.
ETB, S.A.	Euskal Telebista-Televisión Vasca, S.A.
LCSP	Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público.
Ley 5/2010	Ley 5/2010, de 23 de diciembre, de presupuestos de la CAE para 2011.
OPE	Oferta Pública de Empleo.
PCAP	Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares.
RV, S.A.	Gasteiz Irratia-Radio Vitoria, S.A.
TGSS	Tesorería General de la Seguridad Social.
TRRPE	D.L. 1/1994, de 27 de septiembre, Texto Refundido de Régimen Presupuestario de Euskadi y desde el 29 de junio de 2011 el D.L. 1/2011, de 24 de mayo que aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Presupuestario de Euskadi.
TVCP/HKEE	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas / Herri Kontuen Euskal Epaitegia.





I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas (TVCP/HKEE), de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, ha fiscalizado las Cuentas Anuales del Ente Público de Derecho Privado Euskal Irrati Telebista/EITB y de sus Sociedades dependientes correspondientes al ejercicio 2011.

La fiscalización correspondiente al ejercicio 2011 abarca los siguientes aspectos:

- Legales: el cumplimiento de la legislación vigente en materia de adquisición de bienes y servicios, personal y gestión económico-financiera.
- Contables: el sometimiento de la documentación financiera presentada a los principios contables que resultan de aplicación.
- El alcance del trabajo no incluye un análisis de la eficacia y eficiencia del gasto. No obstante, las deficiencias detectadas se detallarán en el epígrafe del informe denominado “Consideraciones sobre el sistema de control interno y procedimientos de gestión”.

El trabajo de fiscalización se ha desarrollado de acuerdo con los principios y normas de auditoría aplicables al sector público, realizándose aquellas pruebas selectivas, revisión de procedimientos y demás técnicas habituales de auditoría que se han considerado necesarias, en cada circunstancia, para soportar la opinión contenida en el informe, incluida la revisión de los papeles de trabajo que soportan la auditoría de las cuentas anuales efectuada por un auditor externo.

EITB, creado por Ley 5/1982, de 20 de mayo, del Parlamento Vasco, y dotado de personalidad jurídica propia, ejerce las funciones que corresponden a la Comunidad Autónoma como titular de los servicios de radiodifusión y televisión, en el marco de las competencias que se asumieron conforme a lo dispuesto en el artículo 19 del Estatuto de Autonomía.

La gestión de los servicios públicos de radio y televisión se lleva a cabo a través de las sociedades creadas para ello: Euskal Telebista-Televisión Vasca, S.A./ETB, S.A., Eusko Irratia-Radiodifusión Vasca, S.A./EI, S.A., Gasteiz Irratia-Radio Vitoria, S.A./RV, S.A. y Eitbnet, S.A. Además, a 31 de diciembre de 2011, EITB posee el 25% en Vilau Media, S.L., el 24,62% en Expressive Media Proyectos, S.L., el 15,74% en Media For Future, S.L. y el 25% de Kulture Klub Euskadi S.L., constituida el 27 de diciembre de 2011.

EITB y sus Sociedades dependientes, de cuyas acciones es el único titular, se financian con cargo a los Presupuestos Generales de la CAE y mediante los ingresos y rendimientos de las actividades que realicen, según establece el artículo 45 de la Ley 5/1982. Por su parte Eitbnet, artículo 12 de sus Estatutos, se financiará con los ingresos propios por el desarrollo de su actividad.

En el ejercicio 2007 se formalizó el contrato programa 2007-2010, que define los contenidos del servicio público de radiodifusión y televisión que el Ente tiene encomendados, concreta los objetivos que se incluyen en su Plan estratégico 2008-2011, los compromisos con la prestación del servicio público de radio y televisión, con la gestión del



servicio y fija una financiación estable a través de las aportaciones del Gobierno Vasco, para compensar el gasto de explotación por actividades específicas, prestación de servicios e inversiones en activos reales y financieros para el Ente y sus Sociedades dependientes.

La comisión de seguimiento del Contrato-Programa acordó el 18 de octubre de 2010 la renovación del vigente en 2010 hasta 31 de diciembre de 2011 y el 28 de diciembre de 2011 aprobó un Contrato-Programa anual para el año 2012.

II. OPINIÓN

II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

II.1.1 ADQUISICIÓN DE BIENES, SUMINISTROS Y SERVICIOS (VER A.4)

1. Se han registrado gastos de 4 servicios por importe de 434.215 euros, sin tramitar el correspondiente expediente, cuando al superar individualmente el importe de 50.000 euros deberían haberse tramitado por el procedimiento negociado con publicidad, de acuerdo a las instrucciones de contratación vigentes en 2011. Por otra parte, el servicio de arrendamiento de pantallas gráficas, previsto inicialmente por importe inferior a 193.000 euros anuales, y adjudicado por procedimiento negociado sin publicidad ha ascendido a 276.696 euros y se debería haber tramitado por el procedimiento abierto por superar dicho importe.
2. ETB, S.A. adjudicó en el ejercicio 2010 el contrato de producción de publicidad por precios unitarios, con un presupuesto máximo de 482.700 euros. En la ejecución de este contrato durante 2011, se han incluido campañas publicitarias no previstas inicialmente que han supuesto un exceso de 306.308 euros. La licitación de este servicio para 2012 ya contempla esta circunstancia al prever la posibilidad de ampliaciones por campañas imprevistas a los mismos precios unitarios adjudicados.

II.1.2 CONTRATACIÓN DE PERSONAL

3. Para la contratación del personal laboral temporal del Ente y sus sociedades ETB, S.A. y Eitbnet, S.A., se utiliza una bolsa de trabajo preexistente que no clasifica los méritos y capacidades de sus componentes, por lo que no se garantiza el cumplimiento de los principios de mérito y capacidad, previstos en la Ley 5/1982 (ver A.2). A diciembre de 2012 ha finalizado, para el 73% de las plazas convocadas, la OPE iniciada en 2010 que actualiza dicha bolsa de trabajo.
4. Si bien el art. 1.2 de la Ley 4/1996, que modifica el art. 16 de la Ley 5/1982, faculta al Director General a “nombrar con criterios de profesionalidad al personal directivo del ente público y de sus sociedades, notificando con carácter previo dichos nombramientos al consejo de administración”, no es menos cierto que no queda definida la figura del personal directivo.

Sin embargo, el art. 47 de la Ley 5/1982, señala que el personal del Ente Público y sus Sociedades Públicas se regirá por lo dispuesto en la legislación laboral (art. 47.1), aún cuando también determina que “la selección de personal para el Ente y sus Sociedades se hará mediante convocatoria pública y de acuerdo con sistemas basados en los principios de mérito y capacidad” (art. 47.2).

De acuerdo con el Decreto 130/1999, EITB tiene asimiladas a “Altos Cargos”, a cuatro personas y además establece el contrato de Alta Dirección obligatorio para dichos cargos.

En el ejercicio 2011 han accedido a puestos directivos funcionales 5 personas por aplicación del concepto de “profesionalidad” que se contempla en el art. 16 de la Ley de creación del ente modificado por la Ley 4/1996 antes citada.



Tres de las 5 personas no tenían relación contractual previa con el ente ni figuran como Altos Cargos, a pesar de ello, han sido contratadas con contratos laborales fijos por lo que se incumple el art. 47 de la Ley 5/1982.”

En opinión de este Tribunal, excepto por los incumplimientos que se detallan en los párrafos 1 a 4, el Ente y sus Sociedades dependientes han cumplido razonablemente en el ejercicio 2011, la normativa legal que regula su actividad económico-financiera.

II.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES

En opinión de este Tribunal, las Cuentas Anuales consolidadas del Ente y sus Sociedades dependientes, expresan en todos los aspectos significativos la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera al 31 de diciembre de 2011, de los resultados de sus operaciones en el ejercicio, de sus cambios en el patrimonio neto y de los flujos de efectivo correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha.

Sin que afecte a nuestra opinión, llamamos la atención sobre el acuerdo del Consejo de Gobierno del Gobierno Vasco de fecha 6 de marzo de 2012, que a propuesta de los Consejeros de Economía y Hacienda, de Industria, Comercio y Turismo y de Cultura y al amparo del artículo 114.1, párrafo 14 inciso 29 del Texto Refundido de la Ley de Patrimonio de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 2/2007, de 6 de noviembre, ha autorizado la incorporación al patrimonio empresarial de la Administración General de la CAE, de la participación que el Ente EITB posee en el capital social de Euskaltel, S.A. Dicha operación supone la devolución del fondo social aportado por la CAE, con cargo a la participación mantenida en Euskaltel S.A., y que se realiza al valor por el cual dicha participación se encuentra registrada en las cuentas del Ente, que asciende a 20,7 millones de euros equivalente a una participación del 5,32%, traspasando por tanto todos los derechos económicos, políticos y de cualquier índole que se mantienen sobre dicha sociedad.

